

ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

Gaur egun Enpresen Gizarte-erantzukizuna (edo gizarte-erantzukizun korporatiboa) kontzeptuari ematen zaion erabilera aintzat hartuta, sarritan, kontzeptu hori zehaztugabea izateaz gain, esangura zabalean erabili da. Europar Batasunak argitaratutako liburuaren arabera, hots, *Libro Verde: Fomentar un marco europeo para la responsabilidad social de las empresas* (Liburu berdea: enpresen gizarte-erantzukizunera zuzendutako Europako esparrua sustatzea) (2001eko uztaila) enpresek borondatez gizarte hobea eta ingurumen garbiagoa lortzeko erabakia hartu dute. Hala ere, nazioarteko erakunde ezberdinak ere ez dira ados jarri kontzeptu hori eta horren aplikazio-irizpideak zehazteko.

Orokorrean, Enpresen Gizarte-erantzukizunean (EGE) iraunkortasun ekonomikoa, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna eskuratzeko enpresen praktikak eta sistemak biltzen dira, bai eta enpresaren jarduketa-eremuan lan egiten duten interes-taldeekin harremanak lortzera zuzendutakoak ere, betiere horien eskariak eta igurikimenak asebetetzeko xedearekin. Kontzeptu horren barruan, berebat, gobernu onarekin zerikusia duten praktikak eta kontu-arrazoiak ematearen bidez enpresaren gardentasunaren alde hartu den konpromisoa jaso dira.

Lan Harremanak aldizkariaren ale honetan, EGEren jatorriaren eta izaera zehatzaren inguruko ikuspuntu ezberdinak, gure inguruan egindako garapena eta enpresa-munduan sartzeko praktika ezberdinak deskribatu dira. Hori guztia nazioarteko dimentsioa ahaztu gabe jorratu da, kontzeptuaren dimentsio ekonomikoa nahiz etikoa agerian uzten duen ikuspuntu irekia eta anizkuna aintzat hartuta. Hain zuzen ere, enpresetan eta merkatuan «giza itxura» handiagoa eskaintzen duten printzipioak eta balioak bultzatu nahi dira.

Horretarako, ale honen hasieran kontzeptua zehaztu eta praktikan jartzeko bi ekarpen egin dira. Orencio Vazquezen artikuluan, enpresako gizarte-erantzukizuna eta horren norainokoa ulertzeko kontzeptu giltzarriak aurkeztu dira. Bestalde, Alfonso Uncetak eta Ander Gurrutxagak Euskal Herriko gizarte-erantzukizun korporatiboaren enpresa-praktikara hurbiltzen gaituzte.

Jarraian azaldutako artikulu-multzoan, erantzukizun korporatiboaren kontzeptua aztertzeke aukera izango dugu. Carlos Morenok gizarte-erantzukizun

korporatiboa enpresak kudeatzeko irizpide gisa planteatzen du, baina horiek garatu eta ezartzeko, beharrezkoak izango dira orokorrean onartutako baliabideak eta irizpideak, bai eta etengabeko ebaluazioa eta egiaztapena ere. Gaztela-Mantxako Unibertsitatearen lan-taldean parte hartu dutenek, Regino Banegas, Montserrat Manzaneque, Antonio Simón eta Francisca Tejedok, gizarte-erantzukizun korporatiboaren garapenarekin lotutako alderdi zehatza jorratu dute, gobernu onaren kodeak, hain zuzen, eta Espainiako Estatuan garatutako esperientzia ezberdinen azterketa konparatu xehea egin dute. Multzo horren amaieran, Pedro Riveroren artikulua dugu; artikulua horretan, enpresa txiki eta ertainetan aplikatutako gizarte-erantzukizunaren arazoa landu da.

Beste bi artikuluei dagokienez, gizarte-erantzukizun korporatiboaren nazioarteko dimentsioa aztertu da. Béatrice Fauchèrek EGEk nazioko eta nazioarteko (sektorekoak eta lanbide artekoak) baliabideei begira izandako ondorioak jorratzen ditu, bai eta baliabide arauemaileei (lan-eskubideak eta gizarte-eskubideak) begira izandakoak ere. Horrez gain, legegintza- eta kontratu-eskubideen etorkizuna eta gizarte-politiken edukia aztertu du. Bestalde, Juan Hernándezek Nazioz haraindiko Enpresen portaera jokabide-kodeen bidez aztertu du, kasu zehatz bat abiapuntu hartuta: Latinoamerikan kokatutako Espainiako nazioz haraindiko enpresak. Horren helburua politikaren eta ekonomiaren dimentsioa mugatzea da, arauketarako eta kontrolerako mekanismo juridikorik izan gabe.

Amaitzeko, Cristina de la Cruzek, Pedro M. Sasiak eta Juan Garibirik idatzitako artikulua dugu. Artikulu horretan, gizarte-erantzukizunaren dimentsio etikoaren ikuspegi kritikoa azaldu da, betiere ikuspuntu ekonomizista soilak eskainitako irakurketaren alternatiba gisa. Ildo beretik, ale honetan beste ekarpen bat aipatu behar da, LAMEGI-EQUAL proiektuaren gizarte-erantzukizunaren lan-taldeak egin duena, hain zuzen. Artikulu horren arabera, gizarte-erantzukizuna aberasgarria egiten duten proposamen berriak sortzeko beharrezana azaltzen da. Oro har, modu larrian baztertuta geratzeko arriskuan dauden taldeak lan munduan murgiltzeko ideia enpresen gizarte-erantzukizunaren definizioaren barruan aintzat hartzeko osagai gisa sustatu nahi da.

Mikel de la Fuente Lavín